

## KONTROL MOZIOA

Ernesto Gasco Donostiako Udaleko talde sozialistaren bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudia aintzakotzat hartu, eta joan den apirilaren 20ko Gune Publikoen Batzordean egindako interpelazioa oinarri, MOZIO KONTROL hau aurkezten dio Udalbatzari, **UDALTZAINGOA MORLANSERA ALDATZEA DELA ETA.**

## JUSTIFIKAZIOA

Laster (ekainean) izango da urtebete Donostiako Sustapena SAREN egoitza berria inauguratu zela: Batzar Nagusien egoitza izandako eraikina, "Etxe-Zuri" izenekoa.

Lekualdaketa hori egin eta gero, orain, beste gauza batzuen artean, Udaltzaingoa Morlansko eraikinera aldatu behar da, polizia kidego horretako kideek eskatu bezala. Horrela, gainera, herritarrei zerbitzu hobea eman ahal izango zaie.

Hala Udalbatzaren Batzordean esandakoaren arabera nola udal gobernuak gai honen inguruan emandako informazio (urri)aren arabera, 2014aren amaieran ziren lekuz aldatzekoak, eta, gehienez ere, 2015aren hasieran, urtarrilean edo otsailean beranduenez. Alabaina, apirilean gaude, legealdia amaitzeaz da eta badirudi legealdi honetan behintzat ez dela hitzemandako lekualdaketa hori egingo. Horrek deserosotasuna eta haserrea piztu du udaltzainen artean, eta, gainera, zerbitzua okerrago izatea ekarriko du, noiz eta udan, gure hiriarentzat, zerbitzu hiria den aldetik eta bokazio turistikoa duen aldetik, hain garrantzitsua den sasoian.

Interpelazioa egin genionean, Herri Babeseko ordezkariak erantzun zuen, berriro ere, lekualdaketa berehala egingo zela, ondo bidez, ekainean.

Udal gobernuak gai hori dela-eta, hitz emandakoa bete gabe eta atzeratzen ibili denez, honako Kontrol Mozio hau aurkezten dugu hemen:



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián



PSE-EE (PSOE) Talde Politikoa  
Grupo Político PSE-EE (PSOE)

Ijentea, 1 - Tel. 943481081 - 943481000 - Faxe 943481500 - partido\_pse-ee@donostia.org - www.donostia.eus  
20003 Donostia / San Sebastián

## KONTROL MOZIOA

Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari legealdi hau amaitu aurretik eta, nolana ere den, udako denboraldia hasi baino lehen, aldatzeko Udaltzaingoa Morlnasko eraikinera.

Donostia, 2015eko apirilaren 24a

Ernesto Gasco,  
Talde Sozialistaren bozeramailea